



**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

605. zkia.

XV. urtea

2007ko martxoaren 9a



**Martxoak 8, Emakume Langilearen Eguna**

**«Urte guztian aldarrikatu behar  
dira emakumearen eskubideak»**

# Tabuak 1981 saltsaberdean



pakoAristi  
mikelMarkez

Martxoak 16, ostirala

20:00etan

Musika Eskolako  
auditorioan

**SARRERA  
DOAN**



Euskara  
Saila



Laxy



OLDSAN



TEMPUR-en koltxo eta burukoekin zure gorputzeko artikulazio guztiak posizio natural batetan hartuko dute atseden.



Garraio gastuak doan. Berria eramatean zaharra doan jasoko dizugu.

## LAGUNAK

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



SARE GURRUTXAGA

Gaur lagun batekin lanari buruz berbetan ari nintzela, berak zera botu zidak: izugarri miresten duela zerbait sortzea lanbide duen edonor. Sortu. Ez dagoena edo existitzen ez dena sortu.

Ez duk errega ezerezetik abiatuta, buruan dagoen ideia batetik soilik abiatuta, ikusi, entzun, ukitu, dastatu edo usaindu daitekeen zerbait lortzea. Sortzea.

Poetak hitzak lotuz poesia sortzen dik. Musikoak notak elkartuz musika. Zientzilariak konposatu kimiko ezberdinak ezta-ndaraziz txerto berri bat sortzen dik. Sukaldariak zapoak konbinatuz zapo berri bat. Munduaren mutur batean egon eta bestaldean dagoenarekin hitz egiteko gailua sortu zuen hark. Eta besteak txori baten funtzioa beteko zuen tramankulua aireratu. Ikusgarriak benetan, besteak beste.

Zirraragarria behar dik izan hik heuk pentsatu eta asmatutako zerbait ideien mundutik at plazaratzeak. Egindako lanak forma hartzeak. Sortze horren baitan denbora inbertitzeak. Bidean geratutako aha-lerin frustratuak berriz eutsi eta ilusioz berrekiteak.

Nik hilabeteetan behin tarte honetarako testu bat sortzea beste sormenik ez diat, nekez eta izerdiz azken aldian, ederki kostata. Inspirazioari presa bat jarri zioat antza, nahi gabe. Eta paper txuria hitz sorta bihurtzen den arren, zergatik ez diat zirra hori sentitzen?

## ZOZOAK BELEARI...



AITZOL GARMENDIA

«Ez duk errega ezerezetik abiatuta zerbait lortzea, sortzea»

SARE

«Sormena, biharko ekonomiaren motorra»

AITZOL

Sormena, biharko ekonomiaren motorra. Argian aurkitutako artikulua. Gaiaren gainean hausnarketa interesgarria bertan. Honatx ideia nagusiak nere uztako beste piskatekin nahasian: berrikuntza/sorkuntza binomioak herrian ditin sustraiak. Ez dun modelo magikoen aplikazio farmazeutikoa, herriaren, hots gu denon, joera baten emaitza baizik. Ez dun prozesu akademiko baten produktua, kultura berritzaile baten emaitza ostera.

Pentsamendu kulturala, herriaren bide historikoa, heziketa akademiko-familiarra, ohiturak, lan-joerak eta helburu profesionalak, baloreak, gizarte modelo kapitalista, ikono eta eredu mediatiakoak... nondik ekin aldaketa baten bila? Non ote ezkutu harritar hori?

Miresmen izugarri urrutitik begiratzen ditinagu Oscar sariak, Best seller idazleak, Ronaldinhoren jokoa, Egañaren bertoak eta beste hainbat sortzaile extralurtar. Baina ez ote zionagu aldi berean gure buruei sormen izate natural bat ukatzen? Ez agian BECeko oholtzatik IKEAko aukitxoei kantatzeko bestekoa, baina bai gure inguruko mundutxo aldatzeko edo begi ezberdin batzukin begiratzeko modukoa.

Hik, Sare, inspirazio errekarri ur-presa baino, denbora gabeziaren presa ez ote dion jarri? Tutu estuan bama presioa gora zain joango eta emaria bortxaz kanporatuko.



ZER ASMATUKO OTE DA LEHEN, AIREA ALA PETROLIOA



Anonimoa

## Ez du umiliatzen nahi duenak...

MTIk otsailaren 23ko BARREN aldizkarian esandakoen harira:

1.- Mendaroko Ezker Abertzaleak MTIren urte hauetako kudeaketaz esan beharrekoa, ez da egindako 5 galdera publikoetan laburbiltzen. Ez dakigu nondik ateraduten MTIkoek kontu hori. Premisa faltsu batetatik abiatuz gero inferentzia zuzenak ez digu ondorioaren zuzentasuna segurtatzen. Kontuz, bada, lehen esaldikoa bezalako argudioekin.

2.- Mendaroko Ezker Abertzaleak ez du inoiz Mendaroko Gazte Asanbladaren lekurik hartu, ez eta hartu nahi izan ere. Bi talde zeharo ezberdinak dira.

3.- Mendaroko Udalak eta Gazte Asanbladak, lokala kudeatzeko moduari dagokionez hartutako erabakiak publikoak izan beharko lirakeelakoan gaude. "Partehartzea eta informazioa" seinalatzen zituen MTIk 2003ko hauteskunde programako bigarren orrian, letra larriz, bere kudeaketaren ardatz moduan. Horixe da, bada, eskatzen duguna, informazioa. Gainera, prentsara jo izana egozten digute, jakin badakitenean, saiatu garela emailez (argi eta zuzen) informazio hori lortzen behin eta berriz. Eskatutako informaziorik ematen ez zitzaigula eta, erabaki gauen Barrenera eskutitza bidaltzea, bide batez beste galdera batzuk ere atxikiz. Oraindik erantzunaren zain gaude. Ez dakigu zein den hainbesteko iluntasunaren zergatia.

4.- Gezurra dio MTIk bere eskutitzean, "... lau urteko isiltasunaren ostean...", dioenean. Egia da ez dugula azken bi urteetan Udaletxeko kontuetan aritzeko denborarik hartu. Guk hala erabakita. Baina ez interes

faltgatik. Gure indarrak modu eraginkoragoan kudeatu nahian hartu genuen erabakia. Baina legisturako lehen bi urteetan bilera mordoska egin genuen MTIrekin: aurrekontuen gorabeheren inguruan, gaztetearen inguruan, bueltatu ahal izan arren (Azkoitian gertatu zen bezala) dagokionari bueltatu nahi izan ez dioten (bide batez, gu biktimiston bazterketan kolaboratuz) zinegotzi plazaren inguruan,... Gezurra diote lotsagarri, eskutitzari indarra nonbaitetik eman behar eta...

5.- Egindako 5 galderetatik, bakarra ere ez du erantzun MTIk (ez zuzen eta ez argi). Aurkeztutako auzi batzuk aipatu ditu, hala ere. Beste batzuk, ikutu ere ez. To garrantasuna.

6.- Amaitzeko, eta lehenbiziko puntuarekin lotuz, esan, sarkasmoak sarkasmo eta ironiak ironia, MTIk egindako gauza askorekin bat gatozela (beste askorekin, ez) eta etorkizunean, elkarlana bultzatzen saiatuko garela. Hori da, behintzat, gure nahia eta asmoa.

### MENDAROKO EZKER ABERTZALEA

## Aisiakinen itxiera dela-eta

BARRENe 604. aleko 11. orrialdean argitaratu zen albistearen gainean gauzatu bat argitzea nahiko nuke, bertan agertzen den informazio guztia ez baita zuzena. 5 urtez egin nuen lan Aisiakinen enpresan, eta nire borondatez utzi nuen lana 2006ko uztailean. Ez naiz hasiko enpresaren itxiera baloratzen, oso balorazio subjektiboa izango litzatekeelako. Baina albisteko azken esaldia ("zorionez, zor guztiak kobratu dituzte") ez da zuzena. Enpresaren

egoera jasanezina zelako alde egin genuen langileok, ordurarte sartutako ordu estrei uko egin behar izan genien, gainera, 2003ko Gabonetako paga bereziaren erdia zor digute eta 2004ko otsaileko nominaren erdia ere bai. Dena dela, garrantzitsuen ondorengo izan da: zenbait hila-betetan Geroa EPSVrako aportazioa kendu ziguten nominatik, baina ez zuten bertara bideratu, ez langilearen zatia, eta ezta enpresarena ere, eta orain, Geroak diru hori guri eskatzen digu. Gai hauek ezin izan ditugu inon erreklamatu, batzuk erreklamatzeko epea bukatu delako eta beste batzuk enpresa itxi denean jakin ditugunez, orain ez dakigu zer egin. Honegatik guztiagatik, egia jakinarazi nahi nuen, eta bide batez, irakurle guztiei jakinaraztea.

FELIX AGEA

## OKERRAK ZUZENTZEN

Joan zen alean, Korrikari buruzko albistean, antolatzaileak AEK Euskaltegia eta Udala zirela jarri genuen. AEKtik esan digutenez, Udalak Korrika Kulturalaren barruan antolatzen diren ekintzetan hartzen du parte, baina Korrikaren antolatzailerak AEK Euskaltegia da.

Gerra Zibilari buruzko erreportajearen, aldiriz, Francoren tropak irailaren 22an sartu zirela jarri genuen, eta esan digutenez, irailaren 21ean sartu ziren. Bestalde, Morkaikon hil zuten Alfonso Carlos De Borbon y Orleans Espainiako Erregearen aitaitxa zela jarri genuen; osaba zela esan digute. Barkatu eragozpenak.



BARRENe ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jarzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04

E-posta: barren@elgoibarkoizama.com

Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizama.com

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRIA

ZUZENDARIA Enrique Bert **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Inigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.620 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



## KEXAK

• **Elgoibarko Kiroldegian ez dago sarrera-aldaparik:** "umeen karroekin baldin bazoaz, eta hori da nire kasua, txirrina jo, atea zabaldu eta igogailua ireki behar dizute sarreran dauden neskek. Irretzerakoan gauza bera gertatzen da, eta askotan zain egon behar izaten dugu. Nire ustez, hau aldatu beharra dago. Kiroldegiko zuzendariak esan zidan orain dela hiru urte onartu zela sarrera-aldapa hori egiteko aurrekontua baina ez dutela ezer egin, gaia baztertuta eduki dutelako. Jende asko ibiltzen da bertan ume txikiekin eta aldapa hori beharrezkoa dela iruditzen zait. Bestalde, udaletxeko bulego batzuetara joateko ere gauza bera gertatzen da, ez dago aldaparik, ezta igogailurik ere, nik dakidanez behintzat".

• **Sigmako aparkalekutik errepidera ateratzeko irteera oso arriskutsua da:** "Eibartik Elgoibarrera datozen autoak oso bizkor ibiltzen dira Sigmako aldapan behera, eta aparkalekutik errepidera ateratzea oso arriskutsua da. Denbora pila bat egon behar zara errepidera ateratzeko zain, eta askotan, ez zara unerik onenean ateratzen. Egunen batean istripu larriren bat gertatuko da seguruenik. Irteera honetan zerbait egin beharra dago, lehen bailehen. Ez dakit zein den irtenbidea, baina abiadura murrizteko sistemaren bat asmatu behar da. Mila esker."



## TXALOAK

• **Txalo bero bat Herri Eskolako ate irekien eguna antolatu zutenei:** "Herri Eskolako guraso talde batek txalo bero bat eskaini nahi die ate irekien eguna antolatu zutenei. Aurtengoan ere, giro oso ona izan dugu, umore onean, alai eta lagunartean pasatu genuen eguna. Ikasleek izugarri disfrutatu zuten, eta gurasoek ere bikain pasatu genuen. Segi horrela, lan ona egiten ari zarete-eta!".



• **Elgoibarko musikazale talde gazte batek Aterkings musika taldea txalotu nahi du:** "Espainiako *Ruta 66* musika aldizkariak Estatuko disko onenen zerrenda burutu du, eta hirugarren postua eman diote Aterkings taldearen *Aterqueens* diskoari. 2006ko Estatuko 3 diska onenen artean sartu da beraz, Elgoibarko taldea eta dudarik gabe, txalo bero bat merezi du. Guri behintzat, izugarri gustatu zaigu mutil hauek egin duten lana. Segi horrela urte askoan, eta ia noiz eskaintzen duzuen kontzerturen bat gure herrian. Mila esker zuen musikagatik".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12



Elgoibarko  
Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia





## URRUZUNIOREN Luma

### Udaberriko Olentzero

Hor zaude, geldik, hegoak zabalik... niri begira. Zu zara, bai; nire ohe gainean zauden udaberriko tximeleta. Beltz eta gorri koloreak dituzu inguruan, zertzelada zuriek margotzen dute zure ibilbidea eta zurtasunean pausatzen zara.

Duela bi urte lehenengoz olentzeroren eskutitza jaso nuen, eta berak ere jaso zuen nirea. Uste nuen marinela batek portua agurtzen duen modura, olentzerok ere befirako agur esan zidala. Baina marinela beti itzultzen da aiduru denaren portura, eta han bazen norbait zain.

Aurten ere ikatz beltza eskutan hartu eta haizea dantzan jarri duzu. Zeruak hitz egiten dakiela ohartu naiz. Hitzotan portuko umela soma nezakeen eta orduan ohartu nintzen portu hartako jostuna nintzela, eta zu berriz, eskutitzak idazten zizkidan txondor alboko marinela.

Baina zeunden tokitik putz egin eta zure zakuan gordeta zen tximeleta dantzan jarri zenuen, zurtasunean barrena niganaino iritsi arte. Belarrira hitz goxoak xaramelatu zizkidan. Txokolatezko talo bero eta izozki hotzen artean jaiotako udaberriko larba zen. Azken batean, niretzako, beti izango zarelako udaberriko olentzero.

*Maialen Olazabal*

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### JOSE ANTONIO GONZALEZ

JOSE ANTONIO ILEAPAINDEGIKOA

• Bezeroek gehien eskatzen duten ile mozketa?

Nagusiek ile mozketa arruntak.

Gazteek berriz, orrazkera desegin eta ausartagoak.

• Zer egin behar dugu ile polit eta osasuntsua izateko?

Ilea sarritan garbitu txanpu on batekin eta ilea lehortzerakotan lehorgailua iletik distantzia batera mantendu ez dadin erre eta kaltetu. Elikadura zaintzeak ere, garrantzia du.

• Ile distiratsua edukitzeko erremedioaren bat?

Ilea behin eta berriz, ongi orrazteak laguntzen du.

• Zenbateko maiztasunarekin moztu behar dugu ilea?

Puntak beintzat, hilean behin mozteko komeniko litzateke.

• Jendek ilbeheran ilea mozten jarraitzen al du?

Nire bezeroek bai. Aste honetan, igarri da ileapaindegian.

• Geroz eta gizonezko gehiagok tindatzen al dute ilea?

Bai. Oro har, gizonezkoek, ile zuria estaltze aldera eta gazteagoak direnek, berriz, metxak egiteko joera dute.

• Azken aldian egin duzun orrazkera ez ohikoena?

Mutil batek, kresta baten faltan, beste bi kresta egiteko eskatu zidan.

• Gizonezkoak ile mozketa ausartekin ausartzen al dira?

Adinaren araberako kontua da. Beste batzuk, beren lanbidetatik edo jendeak esango duena aintzat hartuta, atzera egiten dute.

Ez daukazu **BARREN** buzoira ailegatzeko zain egon beharrik



Ostiral goizetan  
zure ordenadorean daukazu.



[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



Elgoibarko berri izateko beste modu bat.

## [AKORDATZEN NAIZ]



**MARI TERE IRAEGI**

1932an jaioa

«Franco»

**E**skolara juten giñanian, eskua alizau eta "Cara al sol" kantau bihar izaten gendun. Egin biharrekua zan, eta kittol Francon heriotzakin baiño liberazio haundixagua sentiitu naban Carrero Blanco hil zebenian. Harekin diktaduriak segidu egin bihar zaban, eta ez gendun hori nahi. Telebisuan ikusi gendunian kotxiak zelan urten zaban goraka, eta dana desegin zala, sekulako lasaittua hartu gendun. Franco hainbeste denporan egon zan gaixorik!

Hil zanian ez gendun ezer berezirik sentiitu, bazakigun etxakola asko falta.

Euskaldunontzat gogorra izan zan Francon garaixa. Bildurra euki genduan, bildur haundixa. Guarda zibillak fetxorixa asko egitten zeben. Jende gaztiak bildur haundixa zakan, eta bestioke ere! Eske, Guarda zibillak edozer egitteko kapaz ziran. Orduan normale hori zan, baiña oin konturatzen gara zelan bizi izan giñan: bildurra gorputzian sartuta.



## [GURE BERBAK]

*Moduzko esaldixak (eta 5)*

Gaurkuarekin amaittuko dogu moduzko esaldixen aurkezpena.

Aittatzeko geratzen jatazen egitturak ekarriko ditut gaurkuan: *-eN BEZELA, -eN MODUAN, -T(Z)EKE* (nahiz asko ez dan entzuten gaur egun), *-TU (GA)BE* eta *-TUTA*.

Ekarri daiguzen adibidiak:

- *Joxek esaten daban bezela, onena dok egunero pasara bat egittia.*
- *San Bartolomietan pixkat, bai, herrira, normala dan moduan: perixara eta.*
- *Lan astunak dauaz basarixan, baiña basarixa oiñ, hala ere, gu gabizen moduan ganauri(k) pe, erreza dok bizimodua.*
- *Lana amaitzeke laga juek langilliak.*
- *Len lau ero bost ordu eruaten zittuan lanak; oiñ, hórrekiñ makiñiak, ordubetian eitten dok. Eta nekatu be egitten dok.*
- *Zapatak apurtu samartuta zaukazen.*
- *"Milizianuak" esaten zitzakuen háleri, eta (...) han pasau, eta holaxe ikusten zittuen gero sasittikan, bilddurtuta, eurak, goittik.*
- *Hemen ertetzen dogu, eta geratu be, Venezuelara. Hamabost egunian edo hamasei egunian, jota geratu be juten gara.*
- *Bizkaiko jentia, andra gaztiak-eta oiñ, Bizkaikuak-eta asko. Eta hárek eurena. Oiñ, nahastuta egongo dala igual asko? Bai.*

*Jesus Mari Makazaga*



**karkizano**

San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49



San Bartolome, 18  
Tel. 943 74 08 49



**CORDON VILARCHAO**

San Roke, 7 behean  
Pol. Glaso - Glasago kalea, 18 - 25 eta 26 modaleku  
Tel. 943 740 570

**DEKORAZIOA**

Karpo eta barneko estaliturak  
Zaluen kolokadurak  
Lakadutaz: egur, aluminio, P.V.C.  
Pintura orrikorra



MARTXOAK 8, EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

## EMAKUMEAK BERDINTASUNAREN ALDE BORROKAN

*Martxoan sartu gara eta aurten ere, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna aurkitu dugu egutegian. Martxoaren 8a emakumeen eguna da, egun honetan beraiek dira protagonista toki guztietan; lanean, kalean, etxean, komunikabideetan... Eta gainontzeko egunetan? Berdintasunerako bidean nahikoa al da egun bat? Gaurkoan perfil diferenteko hiru emakume ekarri ditugu BARREnera, eta beraiekin hitz egin dugu emakumearen egoeraz. Elsa Sanchez LAB Sindikatuko kidea, Miren Pagoaga Haizea Emakume Taldekoa eta Kristina Garagartza Grindel enpresako tailerreko langilea.*

**Zer esaten dizu zuri martxoaren 8ak?**

**Elsa:** Nire ustez, martxoak 8 aldarrikapenerako egun bat da. Oraindik ere, emakume eta gizonen kolektiboen artean desberdintasunak daude eta egun hori aprobetxatzen da bazterketa eta desberdintasun horiek salatzen.

**Miren:** Egia da urte guztian zehar ekintzak egitea komeni dela, baina egutegian egun bat jartzea inportantea da. Hala ere, batzuentzat oharkabean pasatzen da; komunikabideek ematen diote indar gehien egun honi.

**Kristina:** Gure enpresan egun bat gehiago da, ez dugu ezer berezirik egiten.

**Aurten ere ekintza desberdinak antolatu dira egun honetarako. Nahikoa dela iruditzen al zaizue?**

**E:** Martxoaren 8a iristen den bakoitzean emakumeen aldeko eskubideak bermatzeko egun bat dela esaten da, konpromisoak hartzeko egun bat. Kalera atera eta mobilizatzeko egun bat da. Askotan hor gelditzen da dena.

**M:** Haizea Emakume Taldeetik aurtengoan ere antolatu ditugu zenbait ekintza. Egia da egitaraua nahiko motz gelditzen dela, baina oso zaila da ekintzak antolatzea. Haizea Emakume Taldean 90 bazkide baino gehiago gaude, baina lanerako prest jende gutxi dago. Orain jende berria sartu da taldean eta gauza politikak antolatu ditugula iruditzen zait. Urtean zehar ere antolatzen ditugu zenbait ekintza emakumeen inguruan; bideo forum-ak, hitzaldiak... Hala ere, gehiago egin beharko litzateke.

**Hartuko al duzue parte mobilizazio eta ekintzetan?**

**K:** Ni ezingo naiz kontzentziora joan, aste honetan arratsaldean egiten dut lan.

**M:** Nik bai, hartuko dut parte ekintzetan, antolatzaile moduan eta baita emakume moduan ere. Igandean Kalamuara joango gara eta gero bazkaria egingo dugu. Azken urteetan jende gutxi hartu izan du parte ekintza hauetan, baina aurten jende gazteak eman du izena, bertsolariak eta trikitilariak ere izango dira, eta nik uste dut jende gehiago etorriko dela.

«Emakumeek  
zerbitzuen  
sektorean  
egiten dute lan,  
batez ere»

ELSA

**Etxean, kalean edota ikastetxeetan egiten al da zerbait neska eta mutilen berdintasuna bultzatzeko?**

**K:** Nire ustez gutxi egiten da. Ikastetxeetan behintzat, neska gehienak unibertsitatera bideratzen dituzte eta mutilak lanbide heziketara. Badirudi neskek bakarrik daukabela unibertsitatera joateko gaitasuna eta

mutilak tailerrera joan behar direla. Nire ustez akats bat da.

**Kristina, zuk ez zenuen aholku hori jarraitu, ezta?**

**K:** Ez. Modulo bat egin eta lanean hastera nahi nuen. Ikastetxean unibertsitate karrera bat egiteko esaten zidaten, baina ez nuen nahi. Gurasoekin hitz egin ondoren, IMH-ra joatea erabaki nuen produkzio alorreko modulua egin eta lanera.

**Eta tailerrean, gizonen inguratuta, zer moduz moldatzen zara?**

**K:** Oso ondo. Ni sartu nintzenerako neska bat zegoen han lanean eta duela gutxi beste bat hasi da. Hiru neska gaude gizon artean. Nik uste dut gero eta gehiago izango garela.

**Lantokia prestatuta al dago emakumeek bertan lan egiteko?**

**K:** Ez daukagu nesken aldagelarik, ez dago tokirik. Bulegoak dauden tokian guretzako komun bat daukagu armairuekin. Enpresa batzutan dagoeneko, badaude neskenzako aldagelak.

**Lan munduan zein da emakumearen egoera?**

**E:** Emakumeak, batez ere, merkataritza, zerbitzu, hirugarren adinean eta etxeko etxeko laguntza sektoreetan kontzentratzen dira. Industrian gero eta gehiago dira emakumeak, baina oraindik gutxi dira. Gainera kategoria desberdina izaten dute eta promozionatzeko ere zailtasun handiagoak jartzen dizkiete. Emakumeak mugitzen diren sektoreetan prekaritatea oso altua da: jardunaldi luzeak izaten dituzte



eta soldatak bajuak dira. Lan baldintzak txarrak dira benetan. Gainera, etxean adinekoren bat baldin badago edo gaixoren bat, emakumeari tokatzen zaio zaintzea. Nire ustez emakumea edozein lanpostutarako prestatuta dago, baina lana bilatzeko zailtasun handiak daude.

«Neskak unibertsitatera eta mutilak moduloetara bideratzen dira»

KRISTINA

**K:** Esan beharra daukat alde horretatik, gure lantokian ez dela desberdintasunik egiten, nire soldata nirekin batera sartu zirenen berdina da, ez dut mutilak baino gutxiago kobratzen.

**Etxeoandreen lana behar adina baloratzen al da?**

**M.:** Ez, oso gutxi baloratzen den lana da. Gutxieneko soldatarekin ez da ordaintzen etxeoandreen lana. Bokazio handia eduki behar da borondatez etxeoandre izateko. Emakume gehienek nahiago dute kanpoan lan egitea.

**E.:** Etxeoandreen egoera apur bat regulatu da azken urteetan, teoriarik, behintzat. Dena dela, kotizazioak langilearen esku daude, lan egiten den ordu kopuruaren arabera eta soldata minimoa da, 400 euro ingurukoa. Diru horrekin ez dago gaur egungo gizartearen bizitzetik.

**2006an egunean 10 salaketa izan ziren Euskal Herrian. Zer esaten dizue horrek?**

**E.:** Bikote askotan harremana menpekotasunean oinarritzen da, hau da, gizonak uste du emakumea bera baino gutxiago delako eta horrek boterea ematen dio. Sistema honek bultzatzen duen eredu patriarkatuaren ondorioa da. Lehenengo pausua, berdinak garela sinistea da.

**M.:** Inguruan tokatu zait kasuren bat eta belurtzekoa da. Jende gaztea, itxuraz ondo konpontzen zirenak, eta tratu txarrak jasaten zituen emakumeak.

**K:** Gu koadrilan neskak eta mutilak ibiltzen gara, eta ez da menpekotasun egoerarik ematen. Denok berdinak gara.

«Aldarrikapena urte guztian zehar egin behar da»

MIREN

**Lortuko al da inoiz emakume eta gizonen arteko berdintasuna?**

**E.:** Oraindik orain, eremu ezberdinetan lan handia egin behar da emakumeok parte hartu eta erabakitzeke orduan berdintasunean aritzeko. Erakunde publikoek berdintasun politikak ezarri eta zabaldu behar dituzte, emakumeek baztertzen ez dituzten lan harreman eta enplegu politikak ezarri eta emakumeen aurkako jarra eta indarkeriak desagertu behar dira.

**M.:** Bai, lanean ari gara eta lortuko dugu.



## [ PROTAGONISTA ]



PascalTrotta

Pascal Trotta mediku frantsesak medikuntza ekologikoari buruzko hitzaldia eskaini zuen pasa den asteazkenean. Pascal Trottak egungo botika kimikoez dauzkaten arriskuez hitz egin zuen, bere esanetan, medikamentu hauek ez dituzte gaitzak benetan sendatzen, sintomak arintzen dituzte soilik, eta gainera ondorio larriak sortzen dituzte. Bestalde, Ekuadorreko ospital bati ematen dion laguntzaz hitz egin zuen doktoreak. Han ez daukate baliabiderik eta jendeak emandako diruaz moldatzen dira. Laguntza emateko [pascal.trotta@wanadoo.fr](mailto:pascal.trotta@wanadoo.fr) helbide elektronikora idatzi daiteke.

## [ NOTIZIA ]

### Apraizko depuradora inauguratu dute gaur eguerdian

**M**allabi, Ermua, Eibar, Soraluze eta Elgoibarko ur zikinak garbituko dira Apraizko depuradoran. Gipuzkoa eta Europako ibairik kutsatuena izateagatik ezagutzen da leku askotan gure herria zeharkatzen duen Deba ibaia. Apraizko depuradora izan ibaia garbitzeko lanik garrantzitsuenetarikoa bat eta Foru Aldundiak 13,5 milioi euro gastatu ditu obra honetan. Urtebeteko atzerapena izan duen obra hau, gaur eguerdian inauguratu dute. Bertan izan dira Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, Ahaldu Nagusia; Marivi Agiregomezkorta, Elgoibarko alkatea; Luis Mari Oiarbide Gipuzkoako Garapen Iraunkorreko diputatua eta Esther Larrañaga, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburua.



#### 2012. urterako ibaia garbi

Apraizko depuradorarekin batera eraiki diren beste araztegi eta kolektoreei esker, 2012. urterako Deba ibaia garbi egongo dela jakinarazi du Foru Aldundiko Lurralde Antolamendurako Sailak.

## [ ZENBAKIA ]

# 300.000

Elgoibarko Udalak 300.000 euro erabiliko ditu San Migel auzoko ur homiketa arazoei irtenbidea emateko. Hodi sare berria eraikiko dute eta modu honetan, lehorte garaietan ura zistema kamioietan garraiatzea ordezkatuko dute. Hodi sarea Urasandiko ur-biltegitik bideratzea aztertzen ari dira.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Dotore gelditu da San Pedroko bolatokia. Lehengo bolatoki zaharra ordezkatuko du aurrerantzean argazkian ikusten dugun honek. Bihar arratsaldean inauguratuko da. Lanetan lagundu duten guztiek bazkaria egingo dute San Pedroko jatetxean, eta arratsaldeko 17:00etan hasiko da bolo txapelketa. 30.000 euro inguruko aurrekontua izan du obra honek. Jesus Mari Azpiazu, San Pedroko alkatea, esan digunez, frontoia estaltzeko proiektua martxan da eta frontoi txikia dagoen lekuan soziedadea egingo dute.

## Herritarren iritziekin aurkeztuko da Ezker Abertzalea Udal Hauteskundeetan



**E**lgoibarko Ezker Abertzalearen aurkezpena izan zen joan zen barixakuan Kultur Etxean, eta argi adierazi zuten Udal Hauteskundeetan parte hartuko dutela. Bi arrazoï nagusi azaldu zituen Iñaki Odriozolak: "Gizarte honek ezin duela jasan beste lau urtetan Udala ez-demokratikoa izatea, eta bestalde, beste modu bateko herria aldarrikatzen dugun bakarrak garelako". Beraien hitzetan, "Garbi dago Ezker Abertzalea ezinbestekoa dela Udaletan. Ez bakarrik demokraziaren eta eskubideen izenean, herritarrenganako hurbiltasuna ziurtatzeko baizik".

### Herri programa

Udal Hauteskundeetarako alkategaia eta zerrenda oraindik ez dituzte azaldu, baina herri programa prestatzen ari dira. Horretarako herritar guztien iritzi eta ideiak jaso nahi dituzte. Egoeraren diagnosis egin dute lehenik, eta beraien asmoa herriko koadrila, arlo eta sail desberdinetako 150 lagun baino gehiagoren iritzia jasotzea da. Herri programa horrekin elkarte, auzo mugimendu eta sektore desberdinetara joko dute. Parte hartzea nahi dutenek einbiou@euskalerria.org helbidera bidali ditzakete proposamenak.

## Elgoibarko Gida Turistikoa kaleratu du Udalak



Udaletxeko Kultura Sailak Elgoibarko gida turistikoa berria argitaratu du herriko txoko interesgarrien berri emateko. 40 irudi baino gehiago agertzen dira bertan, herriko mapa eta beste hainbat intereseko datu. Arkitekturari dagokionean, aipamen berezia egiten zaie Kultur Etxea, Altzolako bainuetxea eta Zabale Torre baserriari. Honekin batera, IMH eta fosilen museoari buruzko informazioa irakurri daiteke. Herriko jaiak ere badute lekua gida honetan. Informazio guztia euskaraz, gazteleraz eta ingelesez idatzita dago. Kultur Etxean eskuratu daiteke.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### "Elgoibartarren esanetan" CDa 3 eurotan salgai

Elgoibarko Udalak eta Jabi Leon kazetaritak "Elgoibartarren esanetan" CDa kaleratu dute, Elgoibarko memoria historikoa berreskuratzeko helburuarekin. CD honetan 80 urteko 21 elgoibartarren testigantzak, herriko irudiak eta beste hainbat datu interesgarri aurkituko ditugu. CDa 3 eurotan erosi daiteke Kultur Etxean.

### Merkatu Plazako zozketa

Hilabete honetan 60 euroko bi erosketa-txeke banatu dituzte Merkatu Plazako dendariak. Mamen Vela eta Jone Landa izan dira irabazleak. Saria Merkatu Plazako dendetan gastatu beharko dute.



### Bai ala Ez lehiaketa

Hilabete honetan Rosa Iriondo izan da BARREneko Bai ala Ez lehiaketako irabazlea. Gabi jatetxean bi laguntzako afaria tokatu zaio. Zorionak! Datorren hilabetean Zumaiaiko Zelai talasoterapia hotelean bi laguntzako zirkuitoa zozketatuko dugu.



Elgoibarko Gida Turistikoa kaleratu du Udalak.

## Elgoibarko zein leku erakutsiko zenioke turista bati?

**M<sup>a</sup> ANJELES OÑEDERRA**  
Etxekoandrea 67 urte



“Plaza ingurua. Arku berriarekin eta eliza aurreko ataria oso ondo daude. Kultur Etxeko dorrea, Mintxeta, San Pedro, San Migel eta Urruzuno bailarak ere politak dira.”

**PAULA HERAS**  
Ikaslea  
25 urte



“Alde Zaharreko kaleak erakutsiko nizkioke, eta ibai gainean dauden zubiak. Zubi asko daude eta King-Kong-en dagoen Ikaroren irudia oso polita da.”

**AMELIA DE LEMOS**  
Sukalde laguntzailea  
54 urte



“Egia esanda Elgoibarren ez dago erakusteko askorik. Parrokia eta Plaza Handia ondo daude, IMHko museoa eta bitxikeri moduan Sigmako josteko makina.”

**NORA LANDALUCE**  
Ikaslea  
14 urte



“Zapatuetako giroa eta herriko jaiak. San Bartolomeetan etortzeko esango nioke, Txiki Egunean, batez ere. Sokamuturra ere erakutsiko nioke, oso berezia da.”

## [ BAI ala EZ? ]

Nahiago al zenuke zineman pelikulak euskaraz ikustea?

**BAI %88**

“Bai, dagoena hutsaren hurrengoa da; askoz aukera gehiago eduki beharko genuke pelikulak euskaraz ikusteko. Oso produktu gutxi sortzen edo bikoizten dira.”

**EZ %12**

“Ez. Aktore euskaldunekin egindako pelikulak ikusteko modukoak dira, baina bikoiztutako pelikulak oso gaizki geratzen dira euskaraz. Nik nahiago dut erderaz ikustea.”

Datorren asterako... **Muffomi Fossil eta Mineral museoaren berri eman du Udalak Gida Turistikoan.**

**Izan al zara noizbait Muffomi museoan?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.

Talasoterapia  
**Zelai**  
Z U M A I A

Hilabete honetan  
2 pertsonentzako zirkuito  
bat zozketatuko dugu  
**Zumaiako Zelai Talasoterapian.**  
Zenbat eta erantzun gehiago,  
aukera gehiago!

[www.talasozeelai.com](http://www.talasozeelai.com)

## Etorkinentzako Hiztegi Industriala jarri du sarean IMHk

**E**lgoibarko Makina Erremintaren Institutuak, Debarbarrena eskualdeko etorkinentzako Hiztegi Industriala jarri du sarean, [www.imh.es](http://www.imh.es) helbidean. Dena dela, hiztegia paperean ere ateratzeko aukera aztertzen ari dira. Hiztegi hau etorkinei zuzenduta dago, hau da, kanpotik datozen langileek Debarbarrenako ingurune industrialak hobeto ezagutu eta errazago bertakotu daitezten. Termino bakoitza 6 hizkuntza ezberdinetan ikusi daiteke: euskara, gaztelera, frantsesa, portugesa, errumaniera eta arabiarra. Debarbarrenako Hiztegi industrialak ez ditu hitzen definizio zientifikoak ematen; hizkuntza erraza eta



hurbila erabiltzen du, irudiekin lagunduta, hizkuntza ezberdinetako pertsonen gure inguruko terminologia industrialak ulertzen.

### Ikasle italiarrak Elgoibarren

Elgoibar BH institutorekin elkartrukean Italiako 23 ikasle izan ditugu herrian, martxoaren 2tik 8ra bitartean. Besteak beste, Aquarium-era, Debarbarrenean bisita turistikoa, Azpeitiko ur araztegiara eta Guggenheim museora joan dira beraien egonaldian. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren laguntzaz, martxoaren 27tik apirilaren 2ra joango dira Elgoibarko ikasleak Italiara.

## [ IKAS KONTUAK ]

### “Klasikoa klasean”

Inazio Bereziartua Musika Eskola antolatuta, “Klasikoa Klasean” izeneko kontzertu pedagogikoa izango da datorren astelehenean, hilak 12, Herriko Antzokian. Chopin Studios-eko Xabier Lizasok eskainiko du kontzertua. Ekitaldia goizeko 10:00etan hasiko da eta LH2tik LH6ra bitarteko ikasleentzat izango da.

### LOEri buruzko hitzaldia

Datorren ostegunean, hilak 15, LOEri buruzko hitzaldi eztaiba izango da BH Institutuko Areto Nagusian. Lege berri honen arabera, Lanbide Heziketako ikastetxe integralak osatzeko aukera aurreikusten da, hau da, ekoizpen sistemaren beharrei erantzuteko gai izango diren ikastetxeak. Honek oraingo ikastetxeen tipologia aldatetarik dakartza eta laster mapa eskola berria osatzeko aukera izango da. Hitzaldian Elgoibarko irakaskuntza publikoaren etorkizunaz hitz egingo da eta herrian ditugun ikastetxe publikoen konfigurazioa nolakoa izan behar den argitzen saiatuko dira.



## [ IRTEERAK ]



### Herri Eskolakoak Andutz Mendian

Herri Eskolako Mendi Taldeak antolatuta, Andutzera egin zuten azken irteera ikasle, guraso eta irakasleek. Itziarko industrialdean kotxea laga eta itsaso aldetik igo ziren gailurreraino. Bide motza, baina aldapatsua izan arren, denak iritsi ziren puntaraino. Domeka honetan Antzuolara joango dira, bertako bailarako ibilaldi neurtuan parte hartzeko.



### Pilar Ikastetxeakoak Zeleta baserrian

Pilar Ikastetxeak LH5 eta LH6ko neska-mutilek Elgoibarko Zeleta baserrian izan ziren ortuko produktuak ezagutu eta batere ere, negutegian nola ekoizten diren ikusteko asmoz. Egun berean, Aretxabaletako Etxeberri baserrian behi-esnearen prozesu osoa nolakoa den ikusteko aukera izan zuten, behiak jaitsi eta kontsumitzailearengana iristen den arte.



## IRAKASLEARI azterketa

DBHko laguntza irakaslea

AINHOA ALBIZU




- 1 Zein da ikasleei gehien emepikatzen diezun esaldia?  
"Hasi lanean" edo "segi lanean"; asko despistatu egiten baitira.
- 2 Irakasleei ematen diezun aholkuren bat?  
Beti arazitatzen diet gelako lanak egitearen eta etxean eskolan landutakoa errepasatzearen garrantzia.
- 3 Irakasle lanbidearen alderdi ona eta ez hain ona?  
Alderdi ona, zuk zure aldetik klaseetan dena eman eta ikasleek horren aurrean, modu berean erantzutea. Alde ezokoa, berriz, kontakoa.
- 4 Irakasle izateko bete beharreko etzugarri garrantzitsu bat?  
Pazientzia edukitzea, eta zehazkiago, laguntza gelan, estrategia desberdinak pentsatu behar dituzu, gauzak azaltzeko arduan.
- 5 Zerk ateratzen zaitu zure onetik klasea ematen ari zarenean?  
Ikasleak bestelako gai baten gainean hitz egiten hasteak.
- 6 Irakasle izatek irakasle izaterakoan, zugarri nabaritu duzun aldaketarik?  
Denboraren poderioz, heldutasun eta ziurtasun handiagoa edukitzea.
- 7 Irakasleek etxeko lanak egin ez dituztenean jartzen duten aitzakia?  
Aitzakianik ohikoa, "kuademaa etxean utzi dut" esatea, izaten da.
- 8 Gaur egungo ikasleak lotsagabeagoak al dira?  
Nire ikasleak, behinik behin, ez dira.

## NOLAKO ENBORRA... halako ezpala



ROSA DAQUINTAS ama



AITOR GOMEZ semea

### GALDERAK

- |                                     |                                   |   |
|-------------------------------------|-----------------------------------|---|
| 1. Aste Santurako planik?           | 1. Aurten hemen geratuko gara.    | 1. Galiziara joatea gustatuko litzaidake. |
| 2. Azkeneko irakuri duzun liburua?  | 2. "Preguntas a un adolescente".  | 2. "Leoi erregea".                        |
| 3. Batere gogoko ez duzun jaki bat? | 3. Alkatxofa.                     | 3. Piña.                                  |
| 4. Aukerari: antzerkia ala zinea?   | 4. Antzerkia. Batik bat, komedia. | 4. Zinea.                                 |
| 5. Aktore gustuko bat?              | 5. Leonardo Di Caprio.            | 5. Leonardo Di Caprio.                    |
| 6. Zaletasun bat?                   | 6. Koadroak margotzea.            | 6. Futboleko jolastea.                    |
| 7. Zerk ikaratzen zaitu?            | 7. Beldurrezko filmek.            | 7. Iluntasunak.                           |
| 8. Elgoibarko txako polit bat?      | 8. San Pedro auzoa.               | 8. Kiroldegia.                            |

## TXIKI inkesta

Zer izan nahi duzu handitzen zarenean?

**Ainhoa Uriguen**  
11 urte

Oraingoan, alaitaria izan nahi dut. Animaliak gustuko ditut eta beraien alde zerbait egin nahi dut.



**Mikel Uriguen**  
11 urte

Eskubaloiko atezaina. Gustatzen zaidalako eta lagunak zein entrenatzaileak kirol honetan onak naizela esaten didatelako.



**Alberto Loiola**  
11 urte

Futboleko atezaina. Kirol hau gogoko dudalako eta nire lagunak asko animatu eta laguntzen nautelako.



**Ane Arakistain**  
12 urte

Irakaslea. Irakastea atsegin dut eta nire aita ere irakaslea da. Gainera, txiki txikitatik garbi eduki dut.



## LEHIAKETA

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna: .....

Izen abizenak: .....

Telefonoa: .....

**SARIA**

Elhuyar-ek eskainitako

'EUSKAL HERRIKO SOINU-TRESNAK'

CD-ROMa



**AURREKOA:**



Irabazlea: **Josu Mujika**

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARREnera ekarri edo posta elektronikoz bidali:

[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)



# GAZTIA NAIZ

## 10tsa GA BE

Alex Jorge 14 urte



**Reala 2. mailara jaitsiko al da aurten?**  
Ez, oraindik badaukat esperantza, salbatuko da.

**Eta Athletic?**  
Ezta ere! Biak mantenduko dira lehenengo mailan.

**Zenbaterainoko garrantzia dauka futbolak zure bizitzan?**  
Gutxi, ez dut gehiegi jarraitzen.

**Zein da gehien gustatzen zaizun kirola?**  
Saskibaloia eta eskubaloia ditut gustuko.

**Gustatuko al litzazuke famatua izatea?**  
Bai, ondo bizi dira famatuak!

**Martxoak 8 izan zen atzo. Zer esaten dizu egun horrek?**  
Ezer gutxi, egun bat gehiago izan zen niretzat.

**Gizonak eta emakumeak berdinak al dira?**  
Ez, desberdinak dira. Berdintasuna lortzeko lan egin behar da.

**Emakumea izatea nahiko zenuke, zertarako?**  
Ez nuke nahi neska izatea ezertarako.

**Zertarako eduki nahi dituzu 18 urte?**  
Kotxeko gida-baimena ateratzeko.

**Jarraitzen al duzu politika?**  
Ez. Niri musika gustatzen zait, politika eta futbola ez.

**Elgoibarko alkatea bazina, zer aldatuko zenuke herrian?**  
Herriko parkeak berrituko nituzke.

**Ezagutu duzun lekurik gustukoena?**  
Mallorca asko gustatu zitzaidan.

**Zure ametsetako bidaiak?**  
Hawaira joatea nahiko nuke surf egitera.

**Ezkonduta ala elkarrekin bizi?**  
Ezkonduta.

**10 urte barru non ikusten duzu zure burua?**  
Ez dakit zer ikasiko dudan, baina unibertsitatean egongo naiz.

**Aberatsa bazina?**  
Munduari bira emango nioke.



# BARREN

## jakiteko...



### BERTSO EMANALDIK

Bertso zaletuek zita ugari izango dituzte asteburu honetan, izan ere, herri desberdin askotan antolatu baitira bertso emanaldiak. Hamarka Bertute taldeko kideek antolatuta, Lezon izango da bertso afaria gaur gauean, 21:30etik aurrera. Bilboko Kabia Kultur Gunean ere, Emakumeen Eguneko bertso saioa izango da gaur, gaueko 22:00etan. Eskoriatzan, bestalde, presoan aldeko bertso afaria izango da iluntzeko 20:00etatik aurrera. Bihar, zapatua, etxetik gertu daukagu bertsoarekin zita: Mendaron Sustrai Colina, Jokin Uranga, Andoni Egaña eta Amets Arzallus bertsolarien emanaldia izango ditugu gaueko 22:30ean.

### MUNDUMIRA GRAFFITI LEHIAKETA

Aurtengoan ekainaren 1etik 3ra bitartean izango da Mundumira festa Aretxabaletan. Munduko kultura desberdinak batzen dituen festa izango da eta mota guzietako postuak egongo dira ikusgai. Produktuak, informazio guneak... Euskal Herriak mugitu gabe bidaia-

tzeko aukera paregabea, hain zuzen ere. Hori dela-eta, graffiti lehiaketa antolatu dute. Marraztea gustuko duten guztiek hartu dezakete parte, eta euren abilezia erakusteko aukera izango dute. Informazio gehiago [www.mundumirafesta.com](http://www.mundumirafesta.com) helbidean.

### ARGAZKI LEHIAKETA BERRIA EGUNKARIAN



Berria Egunkariak argazki lehiaketa antolatu du. Interesatuak, Aste Santua baino lehen bidali beharko dituzte erretratuak.

Argazkiak aurtengoak izan behar dira, eta gutxienez 1.800x1.200 pixel tamainakoak, jpg formatuan. Berriak argazki guztiak artxihoan gordeko ditu behar dituztean erabiltzeko.

1. saria Getaria hotolean bi lagunentzako gava eta

2. saria nekazal etxe baten asteburua bi lagunentzat.

Argazkiak [irakurle@berria.info](mailto:irakurle@berria.info) helbidera bidali daitezke.

**gazte**  
informazioa  
Kultur etxean. Bigarren solairuan  
Tel.: 943 74 14 61

Lan dosierrak, bekak, lehiaketak... guzti honen inguruko informazioa

**Gazte informazioko panelean aurki dezakezu!**

## MUSIKA

### Eltziegoko dultzaineroen kontzertua Udal Bandarekin domekan

**E**ltziegoko gaitero ospetsuak Elgoibarren izango ditugu domeka honetan. Goizeko 10:30ean kalejira egindo dute eta ondoren, eguerdiko 12:30ean, Udal Musika Bandarekin batera, kontzertua eskainiko dute Herriko Antzokian. Estreinakoz, Elgoibarren joko dituzten obren artean: Gomez anaien, "Sorpresa" izeneko polka eta Txomin Mujikaren "Pico de Angel" doinua ditugu. Aurreneko doinua, Juanma Saez elgoibartarrak zuzenduko du eta bigarrena, berriz, Txomin Mujikak. Kontzertu honetako egitaraua, beste lau obrek osatzen dute: "Certamen Musical" (R. Dorado); "El Fan-

tasma de la opera" (A.L. Webber); "Pasodoble" (F. Peñafiel) eta "Jota" (M. Turrilas). Azken bietan ere, Eltziegoko gaiteroek parte hartuko dute.

Eltziegoko gaiteroek 1977. urtean hasi zuten beren musika ibilbidea. Juan Carlos eta Juantxu Gomez anaiek eta Jesus Fernandezek osatzen dute hirukotea. Elgoibarrera, ordea, beraietako bi etorriko dira. Sona handia dute Eltziegoko gaiteroek. Euskal Herriko makina bat herritako jaietan egon dira musika jotzen eta eskuartean dagoeneko bost diska dituzte. Domeka honetan, beraz, beraien musika entzuteko aukera izango dugu Herriko Antzokian.



#### K104 taldeak "Odola" diska kaleratu du

K 104 musika taldeak, "Odola" izeneko beren bigarren musika lana kaleratu du. 2006ko azaroan grabatu zuten diska hau eta bertan, 10 abesti eta bideoklipa aurki ditzakegu. Musika taldea, bi elgoibartar, emuar bat eta eibartar batek osatzen dute: Txis (ahotsa), Muntxopa (gitarra), Txepe (baxua) eta Peñal (bateria). Taldekideek jakinarazi digutenez, aurreneko maketarik "K 104", bigarren lan honetara, hoberako aldaketa nabaritu dute eta gustura daude emaitzarekin. Beren abestietako letretan, euren inguruko bizipenak kontatzen dituzte, eta musika estiloa zehatz definitzen ez duten arren, Punk and Roll estiloa egiten dute. Momentuz, apirilaren 21ean, Elgoibarko Gaztetxean kontzertu bat eskainiko dutela konfirmatu digute.

#### Musika Eskolako 14 ikaslek urrezko domina eta beste 12k zilarrezkoa lortu zuten Andoaingo Piano Jaialdian

Inazio Bereziartua Musika Eskolako 26 piano ikaslek Andoaingo II. Piano Jaialdian parte hartu zuten. Beraietako 14 ikaslek urrezko domina eskuratu zuten eta gainerako 12 lagunek, zilarrezkoa.

Andoaingoa, gisa honetako Euskadiko piano jaialdi bakarretakoa da eta bertan, Euskal Herri osoan 701 ikasle batu ziren. Elgoibartarrek euren maila jendaurrean erakusteko abagunea eduki zuten eta bide batez, ikasturtean zehar

ikasitakoa jendaurrean erakusteko baliagarria suertatu zitzaizen. Horren erakusgarri, Vanesa Gomezek esaterako, azken kontzertua eskaini zuen, non, jaialdira aukeztutako piano jole guztien artean, 12 ikaslek soilik jotzeko aukera izan zuten.

Momentu hauetan, Inazio Bereziartua Musika Eskolan, 65 piano ikasle daude eta berauetatik, 45, neskek dira. Instrumentu hau da, hain zuzen ere, ikasle gehien erakartzen dituen musika tresna.



## ATLETISMOA

### Maila ona erakutsi zuten Mintxeta Taldekoek Donostian jokaturiko proban



**M**intxeta Atletismo taldeko kideek emaitza onak lortu zituzten pasaden igandean, martxoaren 4an, Donostian jokaturiko eskolarteko pista txapelketan. Honatx kategoriatan desberdinetan erdietsitako emaitzak: Alebin nesken mailan, Garazi Osoro, aurreneko postuan sailkatu zen pisuaren modalitatean, eta era berean, hirugarren postua eskuratu zuen luzera proban. 1.000 metroko lasterketan, berriz, Lorea Santiago, 4. sailkatu zen. Neskekin jarraituz, infantil mailan, eta 1000 metroko lasterketan, Nora Santiago

eta Otsalar Urainek, 2. eta 3. postuak eskuratu zituzten hurrenez hurren.

Mutiletara jauzi eginaz, bestalde, alebin mailan eta altuera proban, 2. geratu zen Ignacio Ortiz de Urbina eta 1.000 metroko probari dagokionez, Asier Garmendia 2. eta Iker Hernandez 3. sailkatu ziren. Azkenik, infantil mutilen mailan, Mikel Boresek 3. postua bereganatu zuen 1.000 metrotan.

Azpimarratu beharra dago, beraz, Mintxeta Atletismo taldeko atleten parte hartze handia eta jardun ona.

### Kalamuara mendi irteera egingo da igandean Haizea Emakume Taldeak antolatutik

Emakume langilearen eguna ospatzeko asmoz, Haizea Emakume taldeak antolatutiko ekintzen artean, domeka honetan, Kalamuara mendi irteera egingo da eta ondoren bazkaria izango da Aubixan. Irteera, goizeko 10:00etan izango da Plaza Handian. Eguerdiko 12:30ean Kalamuako puntan elkartuko dira eta bertan, trikitiariak eta bertsolariak egongo dira. Ondoren, Aubixan bazkaria (bazkide direnek, 22 euro; ez direnek 25). Mendira ez doazenezat, autobus zerbitzua egongo da Txankakuatik. Informazio gehiago eta izen ematea, Pitxintxu dendan.

### X. Pilota eguna ospatuko da bihar Ikastolako frontoian

Bihar, zapatua, X. Pilota eguna ospatuko da Ikastolako frontoian goizeko 10:00etatik aurrera. Honakoa, hamargarren edizioa izanik, ekintza berezia egin nahi da eta modu honetan, pilota eskolako arduradunak omenduko dira. Kirol ekimen honen antolatzailea, Elgoibarko Ikastola da, eta babeslea, berriz, Euskadiko Kutxa/Caja Laboral.

## Lanbroa



**Gosariak  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera  
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 - Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Ilepaindegia • Estetika • Solarium-a

# Idama

Hilabetero gure bezeroen artean  
**zozketa** bat egingo dugu.



**Martxoan  
Ile-plantxa bat  
zozketatuko  
dugu!!!**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)

Tel.: 943 74 40 26

**RAFA ALVAREZ** SANLO ESLUBALOI TALDEKO PRESIDENTEA

## «Igoera fasea Elgoibarren antolatzea da gure nahia»

*Eskubaloiko denboraldiaren hondarretan aurkitzen garen honetan, Tecnifuelle, senior mutilen taldea, lider doa, 35 punturekin eta Lojantzik, senior nesken taldeak, berriz, sailkapen orokorreko bigarren postuan dirau, 28 punturekin, eta lehenengo postuan kokatzen den Basauriren atzetik, soilik puntu batera. Ezin dugu ahaztu Sanloko beste taldeak egiten ari diren denboraldi txukuna. Hori dela eta, gaurkoan, Rafa Alvarez, Sanlo Eskubaloi taldeko egungo presidentearekin solasean izan gara.*

► Zein da zure ustez, egun Elgoibarren, eskubaloia hain errotua egotearen arrazoiak?

Nire iritziz, Elgoibarren aurreneko eskubaloi taldea sortu zenetik, 18 urte hauetan, neska zein mutilen talde batzuk erreferenteak izan dira, beren lorpenak direla medio, Gipuzkoako eta Espainiako txapelketetan. Aldi berean, neskek, eskubaloian, kirol bat egiteko aukera ikusten dute. Aipatu-

tzekoa den beste kontu bat, gure kluba bat datorrela, Diputazioak sustatzen duen "parte hartze" sistemarekin. Hau da, infantil mailan izena ematen duten guztiek, derrigorrez jokatu behar dute partidetan. Horrek gazteengan kriston ilusia bematzen du.

► Urte guzti hauetako lorpen esanguratsuenak?

1999-2000. denboraldian, Unceta jubenil neskek, Elgoibarren antolatzen Espainiako txapelketako fase fi-


nala jokatu zuten. 2000-01ean, berriz, eki-po berak, lehendabizi, Santanderren jokatu zuten lehen fasea eta gero, fase finala Leonen, Espainiako Txapelketaren baitan. Mutilei dagokionez, 1999-2000. urteetan, junior mutilak, Oviedon egon ziren Espainiako Txapelketan eta 2000-2001ean, Bartzelonara joan ziren espainiako txapelketako fasea jokatzera. Iaz, berriz, 2005-06 denboraldian, Lojantzi senior neskek Iruñan jokatu zuten Espainiako txapelketako fasea.

► Lojantzi eta Tecnifuelle aurten txapel-dun?

Tecnifuelle lider doa eta 4 partidu geratzen zaizkio jokatzeko, bi etxean (Arrasate, Donibane) eta beste biak kanpoan (Gure Jorge Fernandez, Escolapis). Gure partidak irabazita, igoerarako sailkatuta geratuko ginateke. Neskei dagokionez, azken partidari, Lojantzik 32-24 Pulpori irabazi ostean, ziurtaturik dute 2. postua eta igoerako fasea. Honenbestez, oraindik aukerak daude lehenak gelditzeko. Horretarako, ordea, Lojantzik bereak irabazi eta Basaurik kale egin behar du.

► Klubeko zailtasunen artean, zein aipatuko zenituzke?

Azken urteetan, eskubaloi taldeen kopurua igo egin da. Aurten, 145 jokalaririk ari dira jokatzeko guztira, kategoria desberdinetako 9 taldetan. Hori ona da, baina, agian egunen batean, klub bezala, muga bat ezarri beharrean aurkituko gara. Izan ere, samitan, Kiroldegian ez dago denontzat behar beste tokirik, (baldintza egokietan) entrenatu ahal izateko. Kantxa bakarra dugu herri guztian, eta gainerako kirolekin parte-





katu beharrekoa: futbitoan aritzen direnekin, saskibaloian, eskola kirola... Beste alde bate-tik, azkeneko denboraldian somatu izan du-guna, entrenadoreen gabezia izan da.

Alde ekonomikoari erreparatuz, ligaren hasieran, hiru talde patrozinadorerik gabe egon dira, baina, azkenean, lortu genuen, batera eta bestera jo ondoren, hauentzako babesleak bilatzea. Aurten talde bakoitzak, babesle bat du. Urtean, 70.000 euroko aurrekontua dugu. Diru kantiitate hau, hainbat gastuetara bideratzen da: federazioko fitxak, kirol segurua, jokalarien errekonozimendu medikuak eta ekipazioa, material, botikin, desplazamendu eta arbitraje gastuak. Honen aurrean, jokalaria bakoitzak kuota bat ordaintzen du eta bazkideek 10 euro. Udala-ren dirulaguntza ere jasotzen dugu. Hala ere, diru gutxi dela deritzogu. Batik bat, diru falta, ekimen bereziak aurrera eraman nahi dituzunean somatzen da.

#### ► Horieta bat, iguera fasea litzateke?

Bai. Gure nahia, Elgoibarren iguera fa-sea antolatzea da baina, kluba ito gabe.

Neska zein mutilen faseak antolatzea era-bakiko bagenu, (bata etxean eta bestea, kanpoan), 15.000 euro beharko genituzke. Dirutza hori dela eta, ziurrenik zerbait antolatzekotan, mutilena antolatuko dugu, maiatzaren 4, 5 eta 6an. Neskenei dago-kionez, kanpora joango gara, iaz bezala; biei ezingo baitiegu heldu. Une hauetan, ate pila bat ari gara jotzen: udaletxera jo dugu, enpresetara, babesle indartsuak aur-kitu nahi ditugu, erifak saltzeko asmoa ere badugu. Beste erronka bat, talde bietako bat igotzen den kasuan, babesle indartsu bat lortzea izango litzateke. Honetarako, kontaktu on bat duen norbait edo Udaletxe-ak berak enpresa edo ente indartsu bat aur-keztea gustatuko litzaziguke, beste hainbat heritan bezala (Bruesa, Amenabar, Sukia, Grupo Eibar) beregain hartzeko liga nazio-nalean dagoen taldea. Hots, Sanlo Eskuba-loi taldeak duen potentziala ikusita, beste babes mota bat gura genuke. Apur bat, mu-gatuta ikusten gara enpresa horietara iriste-ko eta norbaiten laguntza eskertuko genuke.

## [ EMAITZAK ]

### FUTBOLA

**Haundi 1** - Amorebieta 1  
Lagun Onak 0 - Elgoibar 2 (1. erreg.)  
Elgoibar 3 - Burumendi 1 (Jub.)  
Behobia 0 - Elgoibar 1 (Kad.)  
Elgoibar 2 - Aretxabaleta 0 (Inf.txiki)  
Urola 4 - Elgoibar 2 (Alb.)

### ESKU PILOTA

#### Udaberi Txapelketa

Beloki 22 - Lagunak 19 (1.mail. nagus.)  
Lagunak 18 - Lazkao 22 (2.mail. nagus.)  
Lagunak 19 - Antiguako 22 (1.mail.jub.)  
Lagunak 10 - Olalde 22 (2.mail.kad.)

#### Debaroko Txapelketa

Lagunak 9 - Bergara 22 (nagusiak)  
Lagunak 8 - Bergara 22 (kadeteak)

### ARETO FUTBOLA

Unta Ibarreko 4 - Kenci 2 (Euskal Liga)  
Kenci 4 - Soloasten Lazkao 5 (2.mail. gipuz.)  
Relojes Monadaine 1 - Deutsche Schule 5 (Jub.)  
MCM 12 - Elgoibar 2 (Jub.)

### ESKUBALOA

Ararate 25 - H. Txariduna 23 (Inf. mut.)  
Barakaldo 23 - Tecnifuelle 17 (Sen. mut.)  
Pulpo 24 - Lojantzi 32 (Sen. neska)  
Lezo 4 - Olalsa 20 (Inf.nesk.)  
Tecnomec A 23 - Zarautz 23 (Kad. mut.)  
Pneumax 27 - Zarautz 17 (Jub.mut.)  
Ararate 20 - IMH 28 (Kad.nesk.)  
Cometel 30 - Bera bera 24 (Jub.nesk.)

## [ AGENDA ]

### FUTBOLA Mintxetan

**Zapateria, 10**  
12:00 Elgoibar - Aloña Mendi (Neskak)  
16:00 Elgoibar - Allerru (1. erreg.)  
**Domekia, 11**  
10:30 Elgoibar - Zumaiako (Aleb.)  
12:00 Elgoibar - A. Ondarroa (O. Inf.)

### ARETO FUTBOLA Kiroldegian

**Zapateria, 10**  
10:15 Elgoibar - Relojes Mondaine (Jub.)  
16:00 Kenci - Alegria (Euskal Liga)

### ESKUBALOA Kiroldegian

**Zapateria, 10**  
11:30 Tecnomec A - Gaztelueeta (Kad. mut.)  
13:00 Pneumax - Gaztelueeta (Jub.mut.)  
18:30 Tecnifuelle - Ford Mugarre (Sen.mut.)  
**Domekia, 11**  
11:00 H. Txariduna - Tolosa (Inf. mut.)

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

▶ Etxea dalgai San roken. Eguzkitsua, erabat berritua. 3 logela, egongela, sukalde, 2 komun eta arropa esekilekua. Garaiea eta ganbara. ☎ **943740194**

▶ Duplex-a salgai Artetxe kalean. 4 logela, sukalde, egongela, bainugela. Eguzkitsua. ☎ **696266982**

▶ Etxea salgai erdialdean. 3 logela, egongela, bainugela eta sukaldetangela. 120m<sup>2</sup>. Gas naturala, 60m<sup>2</sup>ko ganbara. ☎ **688650060**

▶ Duplex-a salgai Urasandin. 86m<sup>2</sup> eta 3m<sup>2</sup>-ko balkoia. 3 logela, sukalde, egongela, bainua eta komun. Trasteroa. Kanpoaldera begira, hegoalderantz, eguzkitsua. ☎ **943744403**

▶ Etxea salgai erdialdean. 3 logela, sukalde, egongela, bainugela. 84m<sup>2</sup>. ☎ **646668551**

▶ Etxea salgai Plaza Txiki inguruan. 71,5m<sup>2</sup>. Gas naturala, igogailua, hormigoizkoa. Bizitzera sartzeko. www.esnisp.com/web/etxepolita. ☎ **660884060**

### ALOKAIRUA

▶ Logela bat alokatzen dut.

☎ **943741881/635206436**

▶ Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **695788742**

▶ Logela bat edo apartamentua hartuko nuke alokairuan.

☎ **671110796 (19:00-21:00)**

▶ Pisua hartuko nuke alokairuan Mendaron. ☎ **636690861**

▶ Zarautzen pisua hartuko luke alokairuan familia batek. Hondartzatik gertu. Uztaila eta abuztua.

☎ **943530500**

▶ Mutil arduratsuk etxea hartuko luke alokairuan Elgoibar edo inguan. ☎ **620049420**

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

▶ Garaie ixia alokatzen dut Urasandi eta Madala artean.

☎ **659141232 (17:00-20:00)**

## [ AUTOAK ]

▶ fiat Ducato autokarabana salgai. 1994. urtekoa. 117.000km. 4 plaza.

☎ **619853564**

▶ Mercedes Vito furgoneta salgai.

☎ **620263197**

## [ BESTELAKOAK ]

▶ Ortua konpartituko genuke. Ura, zimaurra eta lanerako tresnak ditugu. Herriitik gertu.

☎ **655723678**

▶ Edergintza bateko makina eta tresnak salgai. 2 ohatila, sauna, solarium, esterilizadorea eta Sorisa etxeko 2 mahai.

☎ **676686758/943743959**

▶ Intel ordenagailua salgai. 2.6 GHz, 512 Mb RAM, 40 Gb disko gogorra, DVD grabagailua, modem, 17"-ko pantaila, eskanerra, TV txartela. 250 euro.

☎ **943742291**

▶ Telebista salgai. 28", 100 hertzio. Panasonic, pantaila laua, ipurdiarekin. 250 euro. Gutxi erabilia.

☎ **636257546**

▶ Apal metalikoak eta lau ume-maniki salgai negozioa ixten delako. ☎ **600230468**

▶ Play Station 2rako jokoak salgai. Egoera onean. 10 euro.

☎ **627889259**

▶ Lasterketako bizikleta salgai. Laiz markakoa. Ekipo guztia, egoera onean. 230 euro.

☎ **627889259**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garaieak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Astezken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako prest. ☎ **671476869 (Maria)**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako prest. ☎ **610632782 (Marta)**

• Neska garbiketarako egin edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ **649368137**

• Emakumea lanerako prest.

☎ **663569263**

• Gizona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest.

☎ **638494501**

• Neska gaztea arratsaldez ume txikiak zaintzeko prest.

☎ **600336245**

• Gizona obretan, igeltsero, edo beste edozein lan egiteko prest.

☎ **616512795**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientziaduna.

☎ **639020180**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientziaduna.

☎ **943741685**

• Magisteritzako ikaslea (Lehen Hezkuntza) klase partikularak emateko prest.

☎ **679237611 (Maria)**

• Magisteritzako ikaslea umeak zaintzeko prest, lanegun eta aste-buruetan.

☎ **679237611 (Maria)**

• Gizona eraikuntza lanetarako prest. Gida baimenarekin.

☎ **679759371**

• Neska lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaindu, garbiketarako egin... Gida baimenarekin.

☎ **628613143**

• Gizona eraikuntza lanetarako prest.

☎ **663724622**

• Bi emakume lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaindu, garbiketarako egin...

☎ **636120425**

• Gizona edozein lanetarako prest.

☎ **691911080**

• Emakumea garbiketarako egin edo nagusiak edo umeak zaintzeko prest.

☎ **638515953**

• Emakumea garbiketarako egin, nagusiak zaindu, jostun lanak egin...

☎ **686 521598**

• Neska lanerako prest.

☎ **626767586**

• Neska lanerako prest.

☎ **638520765**

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest, interna moduan edo orduka.

☎ **699813826**

### ESKAINITZA

• Adineko emakumea zaintzeko neska behar da. Atzeritarrak ez izatea.

☎ **676894367**

• Larunbatetan taberman lan egiteko neska behar da.

☎ **670654921**

• Asteburuetarako kamareroa behar da.

☎ **670250429**

• Egur Arte Tailerrean margo artistikoko klaseak emateko pertsona behar da. Interesatuak Egur tailerrera joan daitezke. (Aita Agirre Plaza z/g 2. pisua. 18:00-20:00)

☎ **943712055 (Silvia)**

• Emakumea behar da ume bat zaintzeko. Goizez, orduka lan egiteko. Ahal bada euskalduna.

☎ **669339529**

• "Ariskuen prebentziorako teknika" klaseak emateko pertsona behar da.

☎ **943820603**

• Bitxiak, barroko erropak eta edergintzako produktuak saltzeko pertsonak behar dira. Ez da esperientziarik behar. Irabazi onak.

☎ **607824892**

• Tabernarako kamareroa behar da.

☎ **943254366**

### ABISUAK

• Hozkailu bat hartuko genuke lokalerako.

☎ **627104915**

• Mutil bat zaintzeko gizonetzkoa behar da. Gizon aktiboa. Bolondresa.

☎ **943 74 07 01**

• Mugerza Kros egunean pulitsera bat aurkitu nuen Mintxetan.

☎ **943 74 42 06**

**CNC**  
mandrinadora edo fresadorarako  
langileak behar dira.

Jan iraunkorra Elgoibarren eskeintzen da.

☎ **943740664**

## [ZORIONAK]



▶ Zorionak **Adei** zure 3. urtebetetzean. Etxekoen partez.



▶ Zorionak Elgoibarko pelukera martxosenari! Nahiz ta kanpotik simurtu, barrutik segi gazte! Zein ote?



▶ Zorionak **Dune** hilaren 12an 3 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



▶ Zorionak **Aner** atzo 10 urte egin zenituelako. Arreba Laida eta familiakoen partez.



▶ Zorionak **Ane** hilaren 1ean 4 urte egin zenituelako. Etxekoen partez.



▶ Etxeko bihurtua! Zorionak **Unax** etxekoen, eta bereziki, Alainen partez 3 muxu potolo.



▶ Zorionak **Irati** martxoaren 7an 3 urte potolo egin zenituelako. Muxu handi bat Urko eta familiakoen partez.



▶ Zorionak **Markel, Gaizka, Ion, Luis Miguel eta Dani** zuen 4. urtebetetzean. Izugarri maite zaituzten gurasoen partez, eta Gaizkari hain lagun ona izateagatik. Zorionak koadrila!



### BEKAK LITERATURA

Beasaingo Udala; CAF; ELKAR. Literatura sorkuntzako Igartza Beka. Narratiba lanak, eleberriak edo ipun-bildumak. Originalak eta euskaraz idatziak. Epea: Ekainaren 29a.

### LEHIAKETAK POESIA ETA ELEBERRIA

Irungo Udala; Kutxa. Kutxa Irungo Hiria Literatura Sariak 2007. Euskarazko eta gaztelarazko lanak. Epea: Ekainaren 10a.

### Rock

Collado Villalbako (Madril Udalak) X. Gazte Rock Granitorock lehiaketa antolatatu du. Estatuko musika talde guztiei zuzenduta dago. Epea: apirilak 30.

### EKINTZAK

#### SAGARRONDOTIK

Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkartea (SKSE). Sagarrondotik Jaialdia 2007. Kontzertuak Hemanin eta Sagardo Eguna Urrietan. Martxoaren 16tik 18ra arte.

#### UDA TXOKO 2007

Udaleku irekien, kanpamentuen eta auzolandegien informazio guztia ondorengo webgunean aurkituko duzu.  
[www.gipuzkoagazteria.net/uda](http://www.gipuzkoagazteria.net/uda)

### IKASTAROAK

#### SOROSPENA

Gipuzkoako DYAK antolatuta. Sorospen eta lehen laguntza ikastaroa izango da Donostian. Iraupena: Martxoaren 12tik 30era. Epea: Plazak bete arte.

### LANA MUSIKA

EGO-Euskadiko Gazte Orkestra Fundazioa. EGO-rako entzunaldiak 16 eta 27 urte bitarteko gazteentzat. Epea: martxoaren 21a.

### BEGIRALEAK

Mondragon Lingua. Uztailako ingeles udalekuetarako begiraleak behar dira. Epea: Martxoak 21.

### UDALTZAINAK

Donostiako Udala. 27 udaltzain lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: martxoaren 21a.

### GAZTE DINAMIZATZAILEA

Zestoako Udalak gazte dinamizatzaile postua betetzeko ososaketak deitu ditu. Epea: martxoak 20.

### BEGIRALEENTZAKO LAN POLITSA

[www.gipuzkoagazteria.net/uda](http://www.gipuzkoagazteria.net/uda)

### ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.

e-posta: [elg.gzerbitzua@terra.es](mailto:elg.gzerbitzua@terra.es)

☎ 943 741 461



Asteartetik ostiralera

17:00-20:00



## [ OKINDEGIA ]



11. igandea BOLINTXO



## [ FARMAZIAK ]

9	<b>GUARDIA</b> 24 ORDUZ
10	Zabaleta
11	Etxeberria ( <i>Errosario</i> )
12	Etxeberria ( <i>Errosario</i> )
13	Ibañez
14	Bidasolo
15	Etxeberria ( <i>Santa Ana</i> )
16	Yudego
	Fernandez

\* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.

### KANPOKO FARMAZIAK

**IBAÑEZ**  
Rekalde, 1 Soraluze.  
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**  
Herriko enparantza 4, Garagarza.  
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**  
Kalebarren, 9 Soraluze.  
Tel: 943 75 13 84



## [ AUTOBUSAK ]

### ELGOIBAR - DONOSTIA

**Astegunak:** 7:10, 8:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 15:40, 16:00, 18:45, 20:00, 20:45  
**Larunbatak:** 7:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 18:45, 20:00  
**Igandeak eta jaiegunak:** 9:45, 10:30, 13:45, 18:45, 20:00, 20:45  
**PESA:** 902 10 12 10

### DONOSTIA - ELGOIBAR

**Astegunak:** 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45.  
**Larunbatak:** 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45  
**Igandeak eta jaiegunak:** 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.  
**PESA:** 902 10 12 10

### ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

**Astegunak:** 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.  
**Asteburuak eta jaiegunak:** 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.  
**EUSKOTREN:** 902 543 210

### MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

**Astegunak:** 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.  
**Asteburuak eta jaiegunak:** 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.  
**EUSKOTREN:** 902 543 210

## [ 9 BARIXAKUA ]

### 18:00 HAURTZAINDEGIAREN ATE IREKIAK

San Rokeko Haur Eskolan. Instalazioak bixitatzeo aukera izango da 20:00ak arte.

### 22:00 BIDEO FORUM-A

Filmea: "En tierra de hombres"  
Kultur Etxeko Hitzaldi gelan  
Hizlaria: Eskame Larinaga  
Antolatzailea: Haizea E. T.  
Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna dela-eta

## [ 10 ZAPATUA ]

### 10:00 X. PILOTA EGUNA

Ikastolako frontoian  
Antolatzailea: Elgoibar Ikastola Babeslea: Euskadiko Kutxa  
Ikastolako frontoian

### 11:00 ELGOIBARKO HERRIA INSTRUMENTU TALDEEN VI LEHIAKETA

Musika eskolako auditorioan  
Antolatzailea: I. Bereziartua musika eta dantza eskola



## ESKERTZA

2007ko martxoaren 1ean hil zen  
**Ignacio Oñederra Uriaren** sendiak,  
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ESKERTZA

2007ko martxoaren 2an hil zen  
**Juli Mendikute Elorzaren** sendiak,  
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





**17:00 IDOTORBE-SAN PEDROKO BOLATOKI BERRIATEN INAUGURAZIOA**  
 Ondoren bolo saioa  
 Idotorben

**22:30 BERTSO JAIALDIA MENDARON**  
 Bertsolariak: Andoni Egaña, Sustari Colina, Amets Arrzallus, Jokin Uranga.  
 Gai jartzailea: Uxue Alberdi Mendaroko Gaztetxean  
 Sarrera: 5 euro

## [ 11 DOMEKIA ]

**10:00 KALAMUARA MENDI IRTEERA ETA AUBIXAN BAZKARIA**  
 Trikitilari (Janire eta Naiara) eta bertsolariekin (Uxue Alberdi, Ainhoa Agirreazaldegia eta Estitxu Izagirre) Autobus zerbitzua egongo da. Informazio gehiago: Pitxintxun

**10:15 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA ELTZIEGOKO DULTZAINEROEKIN**  
 Herriko kaleetan zehar

**12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**  
 Herriko Antzokian

## [ 12 ASTELEHENA ]

**10:00 KLASIKOA KLASEAN KONTZERTU PEDAGOGIKOA**  
 Chopin Studios-eko Xabier Lizasoren eskutik  
 Antolatzailea: I. Bereziartua musika eta dantza eskola  
 Herriko Antzokian

**17:00 LABEKO ESMALTE IKASTAROAREN HASIERA**  
 Egur arte tailerlean  
 Martxoaren 12tik 29ra arte  
 Izenemate ordutegia: 18:00etatik 20:00etara (Plaza Txikian z/g)

## [ 15 EGUENA ]

**16:30 LOE LEGEAREN INGURUKO HITZALDI-EZTABAIDA**  
 Informazioa jaso eta eztabaidatu eta Elgoibarko irakaskuntza publikoaren etorkizuna  
 BH Institutuko areto nagusian

## [ 16 BARIXAKUA ]

**20:00 MIKEL MARKEZ ETA PAKO ARISTI**  
 "Tabuak salda egiteko emanaldia  
 Musika Eskolako auditorioan  
 Dohainik  
 Korrika Kulturala

## ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



«Banderas de nuestros padres»  
 9, barixakua: 22:15  
 10, zapatua: 19:30-22:15  
 11, domekia: 19:30-22:15  
 12, astelehena: 21:30  
 «Shin Chan helduen imperioan»  
 11, domekia: 16:30  
 «Luces al atardecer» (Z.K.)  
 15, eguena: 21:30

EIBAR, UNZAGA

«Eutsi!»

9, barixakua: 19:30-22:15  
 10, zapatua: 17:00-19:30-22:15  
 11, domekia: 17:00-19:30-22:15  
 12, astelehena: 19:30-22:15  
 13, martitena: 19:30-22:15  
 14, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

## «Banderas de nuestros padres»



Zuzendaria: Clint Eastwood.  
 Antzezleak: Ryan Phillippe, Jesse Bradford, Adam Beach  
 Pazifikoko gerrak laga zuen irudi ezagunetarikoa da marine estatubatuarrek Iwo Jima uhartean altxatu zuten banderarena. Ikono bihurtu zen argazki hura, eta diotenez gerra irabazten lagundu zien iparamerikarrei, gerraz nazkatuta zeuden herrikideen itzaropena eta grina piztu baitzituen balentria hura irudikatzeak. Clint Eastwood zinegileak argazkiaren atzean ezkutatzan zen egia errebelatu nahi izan digu, ustezko heroi haien azalean jarritz.

## «Luces al atardecer» (Z.K.)

Zuzendaria: Aki Kaurismäki.  
 Antzezleak: Janne Hyytiäinen, Maria Järvenhelmi.  
 Koistinen gabez lan egiten duen zinpeko zain-tzailea da. Bakarrik eta triste bizi da, inork ez baitu beregan erreparatzen. Hala eta guztiz, ez du beretzako moduko norbait topatzeko itzaropenik galtzen. Errukirik gabeko gaizkile talde bat Koistinenen amodio goseaz eta bere lanbideaz baliatuko da lapurreta bat egiteko. Emakume hotz eta argi bat erabiliko dute beren asmoak aurrera eramateko. Aki Kaurismäki maisu finlandiarrek bere ukitu berezia eman dio filma honi ere.

# Atzera hegira



**1949**. urteko erretratu zahar hau **heritar batek** laga digu. 1949. Nafarroa Enparantzatan aterata dago erretratu, Gabi jatetxe aurrean. Neska koadrila dotore bat ageri zaigu bertan. Egun honetan, Maria Barrutiaren despedida ospatzeko elkartu ziren. Ikusten dugun bezala, denak irrifartsu eta umore onez azaltzen dira. Gogora dezagun zein diren emakume hauek:

Goian, ezkerretik eskumara: **Maruja Anton, Pepita Unzueta, Lucia Gabilondo, Arkadia Gabilondo (t), Nieves Gabilondo.**

Behean, ezkerretik eskumara: **Begoña Latxa, Miren Vallejo, Maria Barrutia (t), Guada Mujika eta Maria Oteiza (t).**



## II. URTEURRENA

2005eko martxoaren 7an, 83 urte zituela hil zen  
**Ramon Maiztegi Iriarteren**  
oroimenez urteurreneko meza izango da,  
larunbatean, hilak 10, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.  
**Etxekoak.**





**RENAULT**  
ocaSIón

## ia berriak aukera apartak



Renault Scénic 1.9 DCI  
Emotion 130zp

**17.950€\***

URTARRILA  
2007

Renault Scénic II 1.5 DCI  
Expression 105zp

**19.900€\***

URTARRILA  
2007

Renault Mégane G. Tour 1.9 DCI  
Luxe Privilège 130zp

**21.100€\***

URTARRILA  
2007

KOPORU MUGATUA  
**13**  
BESTERIK  
EZ

Renault Scénic 1.5 DCI Conf. Exp. (2005)

**14.900 €tik\***

compromiso RENAULT

Garantía ocaSIón

\* Transferentzia-gastuak barne. Eskaintza honek izakinak bukatu arte balio du. Ikusten den itzilgailua ez da eskaintzakoa.



AUTOBERRI ARRASATE - AZPEITIA - ELGOIBAR - IRÚN - TOLOSA

Eta bere agentzia-sarea: BERGARA - LAZKAO - OIARTZUN - ZARAUZ



# MILAR BIRE



Ubitarte, 11 - 943 74 14 87

Zure erosketak  
finantziatzen ditugu



PHILIPS LCD TELEBISTA  
Panoramikoa 32". Pantaila: WXGA LCD,  
1366 x 768p. 2 sarrera HDMI.  
Martxoaren 17ra arte. Dendako salneurria.


**699 €**



1.18  
errotulua  
5 KG.  
A+  
salikapen  
energetikoa

ARROPA  
GARBIGAILUA  
Fagor-L7311D  
Prever Plana barne.

**450 €**



TELEBISTA DIGITAL  
TERRESTREAREN  
ERREZEPTOREA  
WOXTER DVB-T 1500 TV  
4000 kanal.  
Urrutiko agintea.  
Dendako prezioa.

**39 €**



MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

nolako ikasketak,  
halako etorkizuna

Mirian Montero  
Industria Diseinuan Ingeniaritzako  
ikaslea. Hiri-altzariei buruzko  
proiektua Fagor taldeko  
Proiektu Habitat & Equipment  
enpresan.

*"Tankera honetako  
proiektuek, enpresa barruan  
zure lanaren garrantzia  
zein den ikustarazten dizute"*

